

ALDERDI BERRIAK

2007ko URTARRILA • 9.zenbakia



www.hayquehacer.com



"Egin egin behar dugu" esaldiari sinesmena dario, baita ekintzarako borondatea eta ahalmena ere. Liderrak behar du egin beharrekoa egin, gizarteak horixe itxaro du-eta.

"Hay que hacer" significa convicción, voluntad y capacidad de acción. Es la actitud del líder, consciente de que la ciudadanía confía en sus determinaciones.



KOORDINATZAILEA
COORDINADOR
Jose Unzueta

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri "Amatiño"
Saioa Zubizarreta
Inaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa
Euskal Abertzetasunaren Agiritegia
Ángel Ruiz de Azúa

DIAGRAMAZIOA
DIAGRAMACION
EAJren Multimedia Departamendua

ALDERDI BERRIAK es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

ALDERDI BERRIAK Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendarriak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

AURKIBIDEA SUMARIO

**Jaizkibia, Pasaialdea
berreskuratzeko sozietatea
sortu da (3.orr.)**

**Arakamendi: Una nueva
propuesta para Euskadi
(pag. 5)**

Egin behar dugu (7.orr.)

**Nafarroa Bai, gehiengoen mapa
berria (11.orr.)**

**Y vasca, la vía para que
Euskadi avance (pag. 12)**

**Europak De Gasperi eta
Schuman bezalako aitzindariak
behar ditu (14.orr.)**

2007ko URTARRILA

HAY QUE HACER

Si EAJ-PNV ha sabido representar durante largos años a gran parte de los anhelos y deseos de la sociedad vasca es porque se ha demostrado como una organización activa, más dispuesta a hacer que a decir que va a hacer. Frente a la actitud retórica de quienes fundamentan su programa en reivindicaciones ajena a la realidad, EAJ-PNV ha sabido trabajar a pie de calle, prometiendo lo conseguible y consiguiendo lo prometido.

Juan de Ajuriaguerra, testigo de épocas y situaciones difíciles, fue un líder poco dado a palabrerías y discursos grandilocuentes. Acuñó una frase que casi 30 años después de su fallecimiento sigue teniendo sentido político: "Hay que hacer".

"Hay que hacer" significa convicción, voluntad y capacidad de acción. Es la actitud del líder, consciente de que la ciudadanía confía en su disposición para diagnosticar necesidades, proponer objetivos, marcar prioridades y cumplir con los compromisos adquiridos.

EAJ-PNV no se conforma con decir, sabe que, además, tiene que hacer. Hay que hacer es la filosofía que nos ha traído hasta aquí. Hay que hacer en tu barrio, en tu pueblo, en tu ciudad. Proponer, cuestionar, debatir, aportar, innovar, ilusionar...

Hay que hacer.

EGIN EGIN BEHAR DUGU

Esan beharrik ere ez gero, EAJ-PNV gauza izan baldin bada azken urte luzeotan euskal gizartearren kezkak eta ametsak ordezkatzen, lanerako jarrera azaldu duelako izan dela, beti ere lanerako gertuago esne-berbetan jarduteko baino. Errealitatetik kanpo dauden erretorika hutsetan alferrik galtzen direnen aldean, EAJ-PNV gogotik lan egiten jakin izan du, lortu daitekeena agintzen eta agindutakoa lortzen.

Juan Ajuriagerra, hainbat garai eta egoera zailen lekuko, hizjariotan nahasten ez zen buruzagia izan zen. La 30 urte joan dira hil zenetik hona eta oraindik zentzu politiko handia du berak indarrean jarritako esaldia: "Egin egin behar dugu".

"Egin egin behar dugu" esaldiari sinesmena dario, baita ekintzarako borondatea eta ahalmena ere. Liderrak behar du egin beharrekoa egin, gizartea horixe itxaro du-eta: preminak sumatu, helburuak proposatu, lehentasunak zehaztu eta hartutako konpromisoak bete.

EAJ-PNV badaki esan ezezik, egin ere egin egin behar dela. Egiten jakin izan dugulako heldu gara heldu garen lekura. Egin egin behar dugu zure auzoan, zure herrian, zure hirian. Zalantzhan jarri, eztabaидatu, eskaini, eraberritu, liluratu, limurtu...

Egin egin behar dugu.

JAIZKIBIA, Pasaialdea berreskuratzeko sozietatea sortu da



Badiaren etorkizunerako irudia

La nueva sociedad, integrada por representantes del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, los ayuntamientos del Jaizkibel y el Gobierno de Madrid, ha decidido iniciar los trámites para la construcción del puerto exterior, que permitirá la reordenación de la dársena actual. Jaizkibia nace con el claro objetivo de regenerar la bahía en una década.

Nada más constituirse, Jaizkibia ha acometido el proyecto indispensable que condiciona el futuro de Pasaialdea: la construcción del puerto exterior. Con la remisión al gobierno de Madrid del "Documento comprensivo del proyecto básico", donde se recogen las tres posibles soluciones para construir la dársena exterior, el "superpuerto", el "puerto isla", y el "puerto adosado", se ha iniciado el proceso para obtener la Declaración de Impacto Ambiental. Para el diputado general de Gipuzkoa y presidente de la sociedad Jaizkibia, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, "el contador del puerto exterior de Pasaia se ha puesto ya a cero". En palabras de Nuria López de Guereñu, consejera de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, sacar el puerto al exterior permitirá liberar suelo "para usos residenciales, sociales y actividades económicas, lo que redundará en una mejora de la calidad de vida de los

Sozietate eratu berriak lehen urratsak egin ditu kanpoko portua eraikitzeko, gaur egungo nasa berrantolatzeko bidea zabalduz eta Pasaialdea 10 urteren buruan birgaitzeko asmoz. Partaide guztiak izan ziren eraketa bileran: Eusko Jaurlaritza, Madrilgo gobernu, Jaizkibelgo korridoroko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Sozietatea eratu orduko, proiektu nahitaezko bati ekin dio Jaizkibiak, Pasaialdearen etorkizuna baldintzatuko duen kanpoko portua eraikitzeko projektuari "Oinarrizko proiektua osatzen duen dokumentua" Madrilgo gobernuari bidaliz, ingurumen eraginaren deklarazioa jasotzeko prozesua hasiko da. Dokumentuak kanpoko nasa eraikitzeko hiru irtenbide jasotzen ditu: "superportuaren" aurreproiekta, "uharte portua", eta "itsatsitako portua". Jaizkibia sozietatearen lehendakari den Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarriren iritziz, "Pasaiako kanpo portuaren proiekta behin betikoz abiatu da, eta orain hasten da benetako lana Pasaialdea modu sendo batean berreskuratzeko bidean aurrera egiteko". Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailburu Nuria Lopez de Gereñuren hitzetan, ezinbestekoa da portua kanpora ateratzea, era horretan lurra libre uzteko "etxebizitzak egiteko, eta jarduera



Reunión de los representantes de la sociedad Jaizkibia

pasaitarras".

"FOTO FINISH" DE PASAIALDEA

Jaizkibia analizó un documento presentado por la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre cómo podría quedar la bahía de Pasai dentro de ocho o diez años. En este documento orientativo y abierto, una especie de "foto finish" posible de Pasaialdea, se conjugan la actividad económica, las nuevas redes viarias, los equipamientos culturales y náuticos, así como el desarrollo residencial. Estas directrices plantean la bahía como una unidad urbana a la que hay que dotar de una red viaria y peatonal. Así, se prevé la unión de Trintxerpe (Azkuene) con Alza mediante un nuevo vial, otro que complete la circunvalación de la bahía y un tranvía que uniría Donostia-San Sebastián con el polígono Larramon en Lezo.

En La Herrera, "el ámbito que tiene más urgencia y que en más breve plazo se podrá abordar", se plantea la dotación de un sector terciario y de viviendas junto con la construcción de equipamientos culturales y escénicos, tras el derribo de pabellones industriales. El segundo gran espacio que se propone rehabilitar es el extenso muelle situado frente al barrio de Buenavista (Antxo): trasladadas las instalaciones allá existentes y también la estación de Renfe, se podría construir una estación marítima, una zona residencial y espacios para usos terciarios. Se construiría una gran explanada polifuncional que se uniría a la bulevarización de la actual N-1, ya en marcha. En el ámbito este de la bahía, se plantea la eliminación de la central térmica de Iberdrola y ubicar en su lugar, diversos equipamientos, así como habilitar en la península de Kaputxinos, un puerto deportivo.

En el Muelle del Reloj (San Pedro) se reforzaría el puerto de recreo existente y se desarrollaría un puerto pesquero, además de equipamientos deportivos. En Donibane, "donde ya se están realizando importantes actuaciones como Navalaldea", se plantea también un pequeño puerto de recreo y un nuevo equipamiento cultural aprovechando la restauración del palacio Galatras. En Sorgintxulo, se apuesta por el desarrollo del sector terciario y nuevos equipamientos de investigación en el entorno de Don Bosco, mientras que en la bocana se instalaría un

sozial edo ekonomikoetarako, horrek asko lagunduko baitu Pasaia badiaren inguruko populazioaren bizi kalitatea hobetzen".

Pasaialdea, azkenean nola

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako dokumentu bat aztertu zuen Jaizkibiak, Pasaia badiak hemendik zortzi edo hamar urtera har lezakeen itxuraz. Orientazioko dokumentu irekia da, prozesuaren azkenean Pasaialdea nola izan daitekeen erakusten duena, eta batera hartzen dituena jarduera ekonomikoa, errempide berriak, kultura nahiz nautika ekipamenduak, eta etxebizitzak hedapena. Irizpide orokor horien arabera, hiri unitate bakartzat hartu behar da badia, errempide nahiz oinezkoentzako bide sare bat izan behar duena. Horrela, aurreikuspenen artean daude Trintxerpe (Azkuene) Altzarekin lotuko duen errempide berria, beste errempide bat badiaren saihesbidea osatzeko, eta Donostia Lezoko Larramon poligonoarekin lotuko duen tranvia.

Herrerako auzoan, "larritasun handiena duen gunea izanik eta azkarrenik egin daitekeena denez", hirugarren sektoreko jarduerak eta etxebizitzak ezarriko dira, baita kultura nahiz eszena ekipamenduak, industri pabilioiak eraitsi ondoren. Birgaitu beharreko bigarren gune handia da Buenavistako (Pasai Antxo) auzoaren aurrean dagoen kai luzea: bertan diren instalazioak eta Renfeko geltokia beste norabait eramanda, itsas geltoki bat, etxebizitzak multzo bat eta hirugarren sektoreko jarduerak ezar daitezke. Erabilera askotarako zabalgune bat eraiki daiteke, gaur egun abiatura dagoen N-1 bulebar bihurtzeko proiektuari loturik. Badiaren ekialdean, Iberdrolaren zentral termikoa kentzeko asmoa dago, eta leku horretan ekipamenduak joango dira, eta Kaputxinoen aldean, kirol portu bat.

San Pedroko kaian dagoen atseden portua zabalduko da eta arrantza kai egoki bat ezarriko da, kirol ekipamenduekin batera. Donibanen "garrantzizko jarduerak bidean dira, bestekarri Beste Navalaldekoak", eta horiez gain atseden portu txiki bat ezarri nahi da, eta kultur ekipamendu berri bat Galatras jauregiaren zaharberrikuntza oinarri harturik. Sorgintxulon, berri, hirugarren sektoreko jarduerak eta ikerkuntza ekipamendu berriak ezarriko dira Don Boscoren inguruan, eta bokalean jolas eta zientzia ekipamendu bat.

ARAKAMENDI: proposamen berria Euskadirentzat



Zirkuitoa eraikiko den lurren mapa

El proyecto Arakamendi es una alternativa socioeconómica para Alava. Supone la creación de un gran parque recreativo y un espacio destinado al mundo de la automoción en Euskadi a la vez que se fomenta el empleo y la formación en distintos sectores económicos.

Alava está aletargada tras 8 años de gobierno de PP. La falta de proyectos, fruto de su incapacidad para llegar a acuerdos, ha sumado a la ciudadanía en una falta de ilusión sin precedentes. Alava ha tenido un leve crecimiento que no se ajusta a su verdadero potencial.

Alava y Gasteiz necesitan un proyecto innovador que las coloque en el mapa como referente. EAJ-PNV propone la regeneración del monte Araka, actual base militar, como un proyecto ilusionante que conjuga una apuesta por la industria del motor y su aprovechamiento como tractor turístico, sin olvidar la formación de jóvenes en el sector. Arakamendi será un hito en la proyección de Euskadi al exterior.

Araka, propiedad del Ministerio de Defensa, ocupa 720 hectáreas infrautilizadas. La expansión de Gasteiz ha puesto la ciudad en sus límites.

Arakamendi proiektua aukera sozioekonomiko berria da Arabarentzat. Aisialdirako parke handia eta ibilgailu-industriaren munduari zuzenduriko esparrua sortzea dakar Euskadira, lana eta sektore ekonomiko ezberdinen prestakuntza bultzatzen den aldi berean.

Araba lozorroan dago PP gobernuan 8 urtez izan eta gero. Proiektuak falta dira ez delako akordioak lortzeko gai eta, ondorioz, aurrekaririk ez duen ilusio falta ekarri zaie hiritarrei. Arabak hazkuntza txikia izan du eta hori ez dator bat benetan duen ahalmenarekin.

Arabak eta Gasteizek proiektu berritzalea behar dute mapan erreferentziako puntu gisa kokatzeko. EAJ-PNVk Arakako mendiaren birsorkuntza proposatzen du, egun base militarra dena, motorraren industriaren alde eta turismoa erakarriko duen aprobetxamenduaren alde egiten duen proiektu bateratzaile eta ilusioz beterikoa sustatzuz, sektoreko gazteen prestakuntza ahaztu gabe. Arakamendi gertaera gogoangarria izango da Euskadi kanporantz hedatzeko.

Araka Defentsa Ministerioaren jabetzakoa da eta gutxiengi erabilitako 720 hectarea okupatzen ditu. Gasteizen hedakuntza haren mugetaraino iristen ari da jada.

Araka

mendi



Logotipo del proyecto Arakamendi

En Araka se generarán nuevos espacios para la ciudadanía y el desarrollo económico territorial. Su emplazamiento es inmejorable, limitado por cuatro vías principales, junto al aeropuerto y al Parque Tecnológico de Miñano. El proyecto contempla la descontaminación del terreno y su recuperación paisajística para evitar cualquier perjuicio a los y las vecinas de localidades cercanas.

Parque de ocio y circuito de velocidad

Arakamendi tiene 4 ejes: el impulso económico, el ocio, la formación de jóvenes y la regeneración ambiental de la zona. Convivirán tres espacios inexistentes en Euskadi. Un parque recreativo dedicado a actividades del motor y la rueda, un circuito de velocidad y un área de servicios que se complementan con suelo industrial especializado.

4,5 millones de m² disponibles para el ocio con la creación de circuitos entrecruzados para ser recorridos a pie, bicicleta o vehículos a motor que podrían ser utilizados de noche y dos grandes estanques para la práctica del piragüismo, vela o moto náutica que se completa con un espacio dedicado a skatepark, zona aventura y juegos infantiles.

Con Arakamendi llega el 1.er circuito de velocidad para Euskadi que, además del aspecto deportivo, dará servicio a la industria de automoción. Entre el circuito y el Parque Tecnológico se contempla la habilitación de una zona en la que se ubiquen empresas que desarrollen tecnología destinada a las nuevas energías. El circuito homologado tendrá un alto nivel de exigencia para facilitar el estudio de las prestaciones de los productos del sector automoción además de favorecer el espectáculo deportivo.

El 3.er espacio atenderá la demanda de alojamiento y restauración de quienes quieran disfrutar de Arakamendi. Conjugará hoteles, apartamentos, bungalows, camping y área de autocaravanas. A ésto se suma la creación de un spa y un sinfín de servicios como tiendas, supermercados.

Arakan esparru berriak sortuko dira hiritarrentzako eta lurrardearen garapen ekonomikorako. Kokapena ezin hobea da, lau bide nagusik mugatzen dute eta aireportuaren eta Miñanoko Parke Teknologikoaren ondoan kokatzen da. Proiektuak eremua kontaminazioik ateratzea eta paisaia berreskutztea aurreikusi du, horrela, inguruko udalerrietako auzotarrei edozein motatako kaltea eragitea ekiditeko.

Aisialdirako parkea eta abiadurako zirkuitua

Arakamendik 4 ardatz ditu: sustapen ekonomikoa, aisialdia, gazteen prestakuntza eta zonaldeko ingurumenaren birsorkuntza. Euskadin existitzen diren hiru esparru egongo dira batera. Motorraren eta gurpilaren jarduerei eskainitako aisialdi parkea, abiadura zirkuitua eta zerbitzu gune bat, espezializaturiko lurzoru industrialarekin osatuko direnak.

4,5 milioi m² aisialdirako, gurutzatutako zirkuituen sorreraren bidez, oinez, bizikletan edo ibilgailu motordunekin egiteko. Gaez ere, horiek erabiltzeko aukera egongo litzateke. Bi urmael egotea aurreikusi da, piraguismoa, bela edo motor nautikoa egin ahal izateko. Skateparka, abenturako zonaldea eta haurrentzako jolasak ere egongo dira gainerako osagarri modura.

Arakamendirekin Euskadiko abiadurako 1. zirkuitua iritsiko da eta, kirol aldea asetzeaz gain, ibilgailu-industriarentzat ere erabilgarria izango da. Zirkuituaren eta Parke Teknologikoaren artean energia berrien teknologiak garatzen dituzten empresak kokatzeko zonaldea jartza hausnartu da. Zirkuitua homologatutakoa izango litzateke eta exigentzia maila alta izango du ibilgailu-industriaren sektoreko produktuen erabilgarritasuna aztertzea errazte aldera. Horrekin guziarekin batera, kirol emanaldiaren alde egitea espero da ere.

Hirugarren eremuan Arakamendiz gozatu nahi dutenetzako ostattu eta jatetxeak egongo dira. Hotelak, apartamentuak, bungalowak, campingak eta autocaravanetzako tokiak egongo dira. Horrekin guziarekin batera, spa bat eta denda, supermerkatu... anitz sortuko dira.

~~decir~~

hacer

www.eginbehardugu.com



www.eaj-pnv.com

Vuelve a creer en la política.

Egiten jakin izan dugulako heldu gara heldu garen lekura.
Egin egin behar dugu zure auzoan, zure herrian, zure hirian.
Zalantzán jarri, eztabaidatu, eskaini, eraberritu, liluratu, limurtu...

Egin egin behar dugu.

Hay que hacer es la filosofía que nos ha traído hasta aquí.
Hay que hacer en tu barrio, tu pueblo, tu ciudad...
Proponer, cuestionar, debatir, aportar, innovar, ilusionar...

Hay que hacer.

Ideia berriak behar ditugu. egiguzu kritika.

Egin nahi duenak badu non jarraitu egiten...

Tenemos sitio para los que quieren seguir haciendo...

Herria:

Izen abizenak:

Sakeloko telefonoa:

e-maila:

Beste batzuen datuak /
Datos de otras personas:

**Zure datuak gureganatzeko/
haznos llegar tus datos a:**

faxa: 944 039 412 · e-maila: hayquehacer@eaj-pnv.com

SMSa^(*): EAJ (hutsunea)(zure izen abizenak) 5533ra
PNV (espacio)(tu nombre y apellidos) al 5533

(*) Coste del mensaje 0,6 euros + IVA.

TRATAMIENTO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Según las disposiciones de la Ley Orgánica del 15/1999 del 13 de diciembre en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, todos los datos obtenidos son tratados de forma confidencial y recogidos en un fichero informático de titularidad de EAJ-PNV, asegurándole en todo momento la confidencialidad de los mismos y de que sólo serán utilizados por esta organización para realizar sus comunicaciones. En ningún supuesto cederemos, venderemos o facilitaremos información alguna recogida en nuestras bases de datos. En el momento en que se remitan cumplimentados los datos a la dirección indicada, nos otorgan su consentimiento para las finalidades anteriormente señaladas, respetando la legislación vigente en materia de protección de datos. Asimismo, le informamos que en cualquier momento puede ejercitar los derechos de acceso, modificación, cancelación, oposición de los datos recabados y denegar el consentimiento anteriormente facilitado, bien mediante correo electrónico dirigido a la dirección datuak@eaj-pnv.com, bien mediante carta dirigida a: EAJ-PNV · C/Ibañez de Bilbao, 16 · 48.001-Bilbao · BIZKAIA

Egin egin behar dugu.

www.hayquehacer.com



www.eaj-pnv.com

Nafarroa Bai, un nuevo mapa de mayorías



2007ko Foru eta Udal hauteskundeetarako hitzarmenaren aurkezpena

Nafarroa Bai, la coalición formada por Aralar, EA, EAJ-PNV, Batzarre e independientes, concurrirá a las elecciones de mayo con un objetivo muy claro: desalojar a UPN-CDN del poder. El cambio de Gobierno es prioritario y Nafarroa Bai, respaldada por quienes creen que otra Navarra es posible, puede convertirse en la segunda fuerza de la Comunidad Foral.

Cuando a finales de 2003 cuatro partidos dieron forma a Nafarroa Bai, un veterano y conocido diputado navarro sentenció que soñar era fácil, augurando el fracaso de una coalición que tres meses después no sólo conseguiría 61.045 votos sino que dejaría a UPN sin uno de sus tres escaños en el Congreso. Desde entonces y a través de la diputada Uxue Barkos, miles de navarros y navarras se han sentido, por primera vez, representados y defendidos en Madrid. Su voz, su lengua y sus reivindicaciones han llegado de manera nítida y han transmitido un mensaje muy claro: existe otra Navarra, una Navarra progresista, abertzale y vasquista que reclama su espacio.

El pasado mes de junio, las formaciones que integran Na-Bai suscribieron el acuerdo por el que concurrirán a las elecciones forales y municipales de 2007. Impulsar el cambio político en Navarra, la pacificación y normalización de Euskal Herria y el reconocimiento de decisión de la ciudadanía navarra son algunos de sus objetivos

El cambio de Gobierno es posible. Así se desprende de las últimas encuestas publicadas y, sobre todo, del mensaje del miedo que UPN-PP trasladan continuamente a la ciudadanía. "Navarra está en peligro", dicen. ¿Más?, nos preguntamos miles de navarros y navarras.

Nafarroa Bai koalizioa, hau da, Aralar, EA, EAJ, Batzarre eta independenteek eratzen dutena, maiatzeko hauteskundeetara aurkezten da eta aurkeztu ere oso helburu argiarekin: boteretik UPN-CDN kentzea. Gobernua aldatzeak lehentasun osoa du eta Nafarroa Bai, beste era bateko Nafarroa bat zilegi dela uste dutenen babesarekin, bigarren indarra izan daiteke Foru Komunitatean.

2003ko amaieran lau alderdi batu eta Nafarroa Bai eratu zutenean oso ezaguna den adineko diputatu nafar batek berehala esan zuen amets egitea erraza dela eta koalizioak porrot eginen zuela iragarri zuen. Hiru hil beranduago, 61.045 boto lortzea ez ezik, UPNk Kongresuan zituen hiru aulkietatik bat bereganatzea lortu zuen. Ordutik egunera arte aldi honetan diputatua izan den Uxue Barkosen bidez asko eta asko izan dira lehenengoz Madrilén euren buruak euskuordetuta eta defendatuta igarri eta antzeman dituzten nafarrak. Nafar horien guztien ahotsa, hizkuntza eta errebindikazioak argi eta eragozpenik gabe heldu dira Madrilera eta oso mezu gardena transmititu digu: egon dago beste Nafarroa bat, Nafarroa aurrerazale, abertzale eta euskaldunzalea, bere esparrua erreklamatzen duena.

Joan den ekainean Na-Bai osatzen duten taldeek 2007ko foru eta udal hauteskundeetara aurkezteko hitzarmena sinatu zuten.

Gobernu aldaketa zilegi da. Horixe islatzen da argitaratu diren azken inkestetan eta, batez ere, behin eta berriz UPN-PP jaulkitzen ari den beldurrezko mezuetan. "Nafarroa arriskuan dago", esaten dute. Guk, nafarrok, beste era batera egiten dugu galdera: Egunera artekoa baino gehiago?

"Y" vasca, la vía para que Euskadi avance



Trenbide sare berri gehiena tuneletatik ibiliko da

La nueva red ferroviaria de Euskadi, más conocida como "Y vasca", es algo más que un proyecto de infraestructura. Es, sin duda, una pieza clave para fortalecer nuestro desarrollo social y económico, para impulsar nuestras relaciones con el resto de Europa y, sobre todo, para construir un país moderno y avanzado.

A pesar de su evidente importancia, esta infraestructura ha sufrido una parálisis institucional durante 16 años. Finalmente, y gracias a la acción de Gobierno, el pasado abril se desbloqueó esta situación tras el acuerdo alcanzado por el Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco con el Ministerio de Fomento. Este convenio, que supone un paso más en el autogobierno de nuestro país al permitir a la Administración Vasca decidir el destino de gran parte del Cupo, representa un impulso definitivo para la puesta en marcha de la red de alta velocidad en Euskadi.

Como otros grandes proyectos, la "Y vasca" no ha sido ajena a críticas infundadas. Aunque se pretenda afirmar lo contrario, éste no es un proyecto aislado que pretenda unir por alta velocidad las tres capitales vascas para "beneficiar únicamente a las élites económicas", sino que es una parte vital de la red transeuropea y, como tal, cuenta con el aval "prioritario" de la

Euskadiko trenbide sare berria, "Euskal Y-a" bezala ezaguna, azpiegiturako proiektu bat baino zerbait gehiago da. Dudarik gabe, ezinbesteko pieza da gure garapen sozial eta ekonomikoa ahalbidetzen, Europarekiko harremanak sustatzeko eta, batez ere, herrialde moderno eta aurreratua eraikitzen.

Nabarmenki garrantzitsua izan arren, azpiegitura horrek erakundeen aldetik geldiune bat jasan du 16 urtetan zehar. Azkenean, Gobernuaren jardunari esker, joan den apirilean egoera desbloqueatu egin zen, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak Sustapen Ministerioarekin lortutako akordioari esker. Hitzarmen hori urrats bat gehiago da gure herrialdearen autogobernurako, aukera ematen baitio euskal administrazioari Kupoko kopuru handi baten helmuga erabakitzeko. Behin betiko bultzada da abiadura handiko sarea martxan jartzeko Euskadin.

Beste proiektu handi batzuekin gertatu bezala, "Euskal Y-a" ez da oinarririk gabeko kritiketatik kanpo geratu. Kontrako baiezta nahi bada ere, honako hau ez da isolaturiko proiektua euskal hiru hiriburuak lotzeko eta, horrela, "elite ekonomikoei bakarrik onurak ekartzeko", baizik eta ezinbesteko zati bat European zeharreko sarean. Hori dela-eta, EBaren "lehentasuneko" babes du.



La Y vasca complementará al actual sistema de comunicaciones de Euskadi

UE.

Evidentemente, la "Y vasca" no puede solucionar por sí sola todos los problemas de transporte, pero su construcción va a permitir que Euskadi cuente con un sistema de comunicaciones moderno, menos contaminante, basado en el transporte público de calidad, y mucho más seguro.

Las consecuencias y beneficios de su puesta en marcha serán inmediatos: gran parte del tráfico de media y larga distancia (incluido el de mercancías) se desviará al ferrocarril y, por lo tanto, nuestras carreteras serán más seguras y habrá menos accidentes. Además, el ferrocarril es el único medio capaz de utilizar energías renovables, por lo que contaminaremos menos. De esta manera, el tren de altas prestaciones será el complemento a la red urbana de transporte público, (trenes de cercanías, metro y tranvía), y al resto de la red convencional, incluyendo conexiones con puertos, aeropuertos y zonas logísticas.

Además, la nueva red ferroviaria va a cohesionar Euskadi ya que más del 75% de la población tendrá un acceso muy rápido a las estaciones, ya sea porque vive en el núcleo de las capitales o porque contará con buenas conexiones por transporte público (todas las estaciones serán intermodales). Respecto al medio ambiente, es evidente que cualquier infraestructura afecta al entorno natural, pero la incidencia de la "Y vasca" será muy limitada, ya que las vías ocuparán tres veces menos que una autopista y, además, discurrirán bajo túnel en más del 60% del territorio.

Las críticas al proyecto, por lo tanto, parecen alejadas de la realidad, aunque también es cierto que en años recientes hemos asistido a situaciones similares en las que importantes actuaciones destinadas a servir al conjunto de la sociedad han sufrido la incomprendión e incluso el ataque de algunos sectores sociales que, posteriormente han tenido que reconocer su error. Sin ir más lejos ahí tenemos el ejemplo del Metro de Bilbao. La "Y vasca" es, en definitiva, una apuesta por el transporte público de calidad y accesible para todas las personas, que va a consolidar nuestro desarrollo económico y la consecución de la "Euskal Hiria".

Egia da "Euskal Y-ak" bere kabuz ezin dituela garraio arazo guztiak konpondu. Aitzitik, sarea eraikitzeak aukera emango dio Euskadiri komunikazio sistema modernoa izateko, kutsadura gutxiagokoa, kalitatezko garraio publikoan oinarriturikoa eta askoz seguruagoa.

Martxan jartzearen ondorio eta onurak berehalakoak izango dira: distantzia ertain eta luzeko trafiko gehiena (merkantziena barne) trenera eramango da eta, beraz, gure errepideak seguruagoak izango dira eta istripu gutxiago egongo. Gainera, trenbidea da energia berriztagarriak erabiltzeko gai den bide bakarra, ondorioz, kutsadura gutxiago eragingo dugu. Horrela, prestazio handiko trena izango da garraio publikoko hiri sarearen (merkantziako trenak, metroa eta tranbia) eta ohiko gainerako sareen osagarria, portu, aireportu eta zonalde logistikoekin loturak izanez.

Gainera, trenbide sare berriak Euskadiren kohesioa ekarriko du, izan ere, biztanleen % 75ak sarbide oso azkarra izango du geltokietara, bai hirigunean bizitzeagatik, bai garraio publiko bidez lotura onak izateagatik (geltoki guztiak intermodalak izango dira). Ingurumenari dagokionez, argi dago edozein motatako azpiegiturak inguru naturalari eragiten diola, baina "Euskal Y-aren" eragina oso mugatua izango da, izan ere, bideek autopistak baino hiru aldiz toki gutxiago okupatuko dute eta, gainera, tunel azpitik joango da ibilbidearen % 60a baino gehiago.

Proiektuari eginiko kritikak, beraz, errealtitatetik urrun daudela dirudi, nahiz eta egia den ere aurreko urteetan antzeko egoerak ikusi ahal izan ditugula. Kasu haietan ere, gizartearren osotasunari onura ekarriko zioten jarduera garrantzitsuek gizarteko zenbait sektoreren ulertzintasuna eta erasoja jasan zuten, ondorenean beren akatsa onartu behar izan badute ere. Oso urrun joan gabe, hortxe dugu Bilboko metroaren adibidea. "Euskal Y-a", azken batean, pertsona guztientzako kalitatezko garraio publiko irisgarriaren aldeko apustua da. Horrek gure garapen ekonomikoa sendotuko du eta "Euskal Hiria" lortu.

Europa requiere de líderes como De Gasperi y Schuman



Josu Jon Imaz eta Romano Prodi, elkarrekin Erroman

"Europa necesita de nuevos líderes carismáticos que repiensen la Unión, renueven la ilusión y acerquen el ideal europeo al conjunto de los ciudadanos". Este es una de las claves suscitadas en Roma, durante el debate celebrado al término del II Congreso del Partido Demócrata Europeo, con la participación de EAJ-PNV.

"Cincuenta años de éxitos y desafíos en la consecución de una Unión Europea más fuerte" fue el tema del debate abierto con la presencia del primer ministro italiano y presidente de honor del PDE, Romano Prodi, y de líderes políticos como Francesco Rutelli, vicepresidente del gobierno; François Bayrou, máximo representante de la UDF; Bronislaw Geremek, luchador polaco por la libertad; Ellen Tauscher, líder del Partido Demócrata americano; Pascual Maragall, ex presidente de la Generalitat de Catalunya y Josu Jon Imaz, presidente del Euzkadi Buru Batzar.

Además de echar de menos a figuras históricas como De Gasperi, Schuman o Adenauer, se resaltó la dificultad de divulgar ante el gran público textos áridos y complejos como el Tratado Constitucional, y se admitió la lejanía de las

"Europak karismadun aitzindari berriak behar ditu, Batasuna berriz hausnartuko dutenak, ilusioak berriztatuko dituztenak eta Europako idealak herritarrengana hurbilduko dituztenak". Hau izan da EAJren parte hartzearekin Europako Alderdi Demokratak Erroman egun zuen II. Kongresuaren amaieran egin zen eztabaidan sortu zen gakoetako bat.

Italiako lehen ministroa eta PDEren ohorezko lehendakaria den Romano Prodiaren presentziarekin ireki zen eztabaidaren gaia "Berrogeita hamar urteko arrakastak eta erronkak Europar Batasun sendoagoa lortzeko" izan zen. Halaber, bertan makina bat aitzindari politiko izan zen, adibidez gobernuko lehendakariordea den Francesco Rutelli; UDFren eskuorde gorena den François Bayrou; askatasunaren alde borrokatu zen Bronislaw Geremek poloniarra; Ameriketako Alderdi Demokrataren aitzindaria den Ellen Tauscher; Catalunyako Generalitatearen lehendakari ohia den Pascual Maragall eta Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaria, Josu Jon Imaz.

Lehenengo eta behin De Gasperi, Schuman edo Adenauer bezalako figura historikoen beharrizana azpimarratu zen gero beste gai askori ekiteko. Testu oso lehor eta konplexuak jendearen



Miembros de la delegación de EAJ-PNV al término del Congreso

instituciones europeas, como si cuanto se decidiera en Europa no afectara a la realidad cotidiana de sus ciudadanos, cuando la realidad es precisamente la contraria.

Tampoco faltaron críticas relativas al doble juego de la política interna de los Estados miembro, que consideran como "nacionales" los logros europeos mientras que utilizan a la Unión Europea como chivo expiatorio de dificultades y desaciertos propios.

Apoyo al proceso de pacificación de Euskadi

El II Congreso del PDE volvió a mostrar su apoyo al proceso de pacificación y normalización política de Euskadi. Josu Jon Imaz agradeció la posición de la Alianza de Liberales y Demócratas en el pleno del Parlamento Europeo del pasado 25 de octubre, sin cuyo apoyo no hubiera salido adelante la resolución favorable al proceso de paz. Imaz se mostró conocedor de "las dificultades de comprensión que un proceso de estas características suscita en algunos sectores de opinión europeos" y agradeció la voluntad mostrada por la dirección del PDE.

Este segundo Congreso del PDE reafirmó asimismo su profunda vocación europeísta e insistió en la necesidad de hacer llegar a la ciudadanía el convencimiento de que Europa es una realidad cercana y que en cuestiones tan candentes como la inmigración o la política medioambiental sobrepasan las fronteras tradicionales de los Estados miembro y son ya, de hecho, cuestiones que afectan al conjunto de Europa, y cuya solución únicamente puede ser abordada desde la propia Unión Europea. En este sentido, Josu Jon Imaz, en calidad de vicepresidente del PDE, aseguró que conflictos como los del Líbano, Oriente Medio o Irak hubieran tenido probablemente otro desarrollo si "Europa hubiera contado con una estrategia propia, única y fuerte, en política exterior".

Junto con Josu Jon Imaz, la delegación jeltzale estuvo compuesta por los burukides Josune Ariztondo y Gorka Agirre, los cargos electos Josu Ortuondo, Josu Erkoreka e Iñaki Anasagasti, y el Comisionado del Lehendakari para la Relaciones Exteriores, José M. Muñoa, así como Ana Iturriaga y Miren Saratxaga, en representación de EGI.

artean zabaltzeak dituen zaitasunak aztertu ziren, adibidez Konstituzioaren Ituna, eta onartu egin zen erakunde europarrak urrun daudela eta, nolabait esateko, ematen duela Europen hartzen diren erabakiek ez dutela eraginik gure eguneroko bizitzetan, errealtitatea erabat denean kontrako.

Estatu kideen barruko politikaren joko bikoitzari buruzko kritikak ere azaldu ziren, horiek Europan lortzen diren gauzak "nazionaltzat" jotzen dituztelako eta, aldi berean, norberaren zaitasun eta akatsetan Europar Batasuna bekatari moduan jartzen dutelako.

Euskadiko bake prozesuarekin bat egitea

PDEren II. Kongresuak, berriz ere, Euskadiren bakeratze eta normalizazio prozesuarekin bat egin zuen. Josu Jon Imazek Europako Parlamentuko urriaren 25eko Osoko Bilkuran Liberal eta Demokraten Aliantzak izan zuen jarrera eskertu zuen. Imazek esan zuen oso ondo ezagutzen dituela "mota eta ezaugarri hauek dituen prozesu batek Europako iritzi sektore jakin batzuetan ulertzeko eragiten dituen zaitasunak".

PDEren bigarren kongresu honek, aldi berean, oso argi berretsi du alderdiaren bokazio europar sakona eta adierazi du beharrezko dela herritarrei ulertazartea Europa hurbil dauagun errealtitatea dela eta argi izan behar dugula egunerokotasun osoko gai askotan, berbarako inmigrazioa edo ingurumenaren arloko politika, gainditu egiten direla estatu kideen muga tradicionalak eta aspaldian horiek Europa osoa ukitzen duten arazoak eta gaiak direla eta horiei guztiei irtenbidea emateko aukera eta bide bakarra Europar Batasuna bera dela. Ildo honetatik Josu Jon Imazek, PDEren lehendakariorde moduan, baiezta egin zuen Libano, Ekialde Ertaina edo Irakeko bezalako gatazketa garapena beste erabatekoia izango zela seguruenik "Europak kanpo arazoetako politikari dagokionez estrategia propio, bakar eta sendoarekin jokatu izan balu".

Josu Jon Imazekin batera Kongresuan izan ziren Josune Ariztondo eta Gorka Agirre burukideak, Josu Ortuondo, Josu Erkoreka eta Iñaki Anasagasti kargu hautetsiak eta Kanpo Harremanetan lehendakariaren batzordeburua den José M. Muñoa. Horiek ez ezik, EGI eskuordetuz bertan izan ziren Ana Iturriaga eta Miren Saratxaga.



www.eginbehardugu.com

